

69. EUSKAL SOZIOMETROA: UNIBERTSITATEA (2019ko apirila) Prensa oharra

SARRERA

69. Euskal Soziometro honen gai nagusia Unibertsitatea izan da. Egoera ekonomiko eta politikoarekin lotutako beste gai batzuk ere aztertu dira. Landa lana 2019ko urtarrilaren 29a eta otsailaren 9a bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Euskadiko egoeraren balorazioa 1995etik neurtutako onena da

Euskadiko herritarren balorazioak oso baikorrak dira, bai beren egoera pertsonalari buruz (6,9 Otik 10erako eskalan), bai Euskadiko egoerari buruz (6,5). Azken hau 1995ean hasitako bilduma osoan neurtutako baloraziorik onena da.

Espainiako egoera dezente okerrago baloratu da (4,8), baina 2014an hasitako hoberanzko joerari eusten dio.

Herritarren ustez, Euskadiko arazo nagusiak berriz ere lan merkatuarekin lotutakoak dira (%66k aipatu dituzte hiru arazo nagusien artean), nahiz eta beheranzko joerari eusten dioten. Askoz gutxiago aipatu dira ondorengo arazoak: egoera politikoa, politikariak eta gatazka politikoa (%11), arazo ekonomikoak (%11), etxebizitza eta etxe gabetzeak (%10), osasungintza (%7), pentsioak (%7), hezkuntza (%7), zerbitzu publikoen funtzionamendua eta estaldura eta laguntzak (7%) eta delinkuentzia eta segurtasun falta (%6).

Herritarrek segurtasun maila altua hautematen dute beren inguruan. Herritarren %53 guztiz ados eta %36 nahikoa ados daude beren herri edo hiria bizitzeko leku segurua delako ideiarekin. %11 guztiz edo nahikoa kontra daude.

EAEko herritarrek instituzioekiko konfiantza maila altua adierazten dute, bereziki unibertsitatearekiko (%78k gehienbat konfiantza dute), Eusko Jaurlaritzarekiko (%77), bere herriko udalarekiko (%75), Eusko Legebiltzarrarekiko (%72) eta bere Foru Aldundiarekiko (%70). Atzetik datoz GKEak (%61), Europar Batasuna (%58) eta enpresak (%52). Konfiantza gutxiago eragiten dute sindikatuek (%43), hedabideek (%39), justizia epaitegiek (%30), Espainiako Gobernuak (%27), Eliza Katolikoak (%26), bankuek (%23), Diputatuen Kongresuak (%22), alderdi politikoek (%19), eta azkenik, Espainiako erregeak (%16).

UNIBERTSITATEA

Euskadiko unibertsitateen funtzionamendu eta kalitateari buruzko iritzi ona

EAEko biztanleen %33k ikasketa unibertsitarioak egin dituzte edo egiten ari dira eta %58k dute egin dituen edo egiten ari den hurbileko senideren bat.

Herritarrak oso kontziente dira Unibertsitateak Euskadirentzat duen garrantziaz, 10etik 9k uste dute oso edo nahikoa garrantzitsua dela Euskadiren garapen kulturalerako, gizarte aurrerapenerako eta garapen ekonomikorako.

Eurentzat pertsonalki edo hurbileko senideren batentzat unibertsitate karrera edo Lanbide Heziketako goi-mailako gradua aukeratu beharko balute, biztanleen %51k unibertsitateko karrera nahiago lukete eta %35ek LHko goi-mailako gradua. %14k ez dakite edo ez dute erantzun.

Euskadin ezagutzen dituzten unibertsitateei buruz galdetuta, inkestatuen %81ek UPV/EHU aipatu dute, %69k Deustuko unibertsitatea, %32k Mondragon Unibertsitatea eta %7k beste batzuk.

Biztanleen %18k uste dute Euskadiko unibertsitateek oso ondo funtzionatzen dutela, eta %60k nahikoa ondo. Soilik %4k uste dute gaizki edo oso gaizki funtzionatzen dutela, eta %18k ez dute iritzirik eman.

%37k deritzote Euskadiko unibertsitateen kalitatea Estatuko gainerako erkidegoetako unibertsitateena baino hobea edo askoz hobea dela, %35ek antzekoa dela deritzote eta soilik %2k txarragoa dela. %26k ez dute iritzirik.

Europako beste herrialdeetako unibertsitateekin konparatuz, %8k uste dute Euskadiko unibertsitateen kalitatea hobea edo askoz hobea dela, %40k antzekoa dela eta %16k txarragoa edo askoz txarragoa dela.

Iritziak banandurik daude Euskadiko unibertsitateetara sartzeko erraztasunaren inguruan. Biztanleen %44k uste dute Unibertsitatera iristea erraza edo oso erraza dela, eta %41ek oso edo nahikoa zaila dela. %16k ez dute iritzirik eman. Zaila dela deritzotenen, dakarren gastua eta zenbait ikasketara sartu ahal izateko eskatzen diren kalifikazio altuak aipatu dituzte arrazoi nagusizat.

Biztanleen %17k Euskadiko unibertsitateetako irakaskuntzaren kalitatea oso ona dela irizten diote eta %62k nahikoa ona dela. Soilik %4k deritzote txarra dela eta %17k ez dute iritzirik.

Herritarren %20k uste dute Euskadiko unibertsitateetan titulazio aukera handia dagoela eta %52k dezentekoa, %6k uste dute aukera txikia dagoela eta %21ek ez dute erantzun.

Irakasleen prestakuntzari dagokionez, %15ek uste dute oso prestatuak daudela, %50ek nahikoa eta %6k gutxi prestatuak daudela. %28k ez dute iritzirik.

Unibertsitateek bere inguruko enpresekin duten harremanari dagokionez, biztanleen %12k harreman asko dutela deritzote, %38k nahikoa, %18k gutxi eta %1ek oso gutxi. %30k ez dute iritzirik eman.

Inkestatutako pertsonen %10en ustez, Euskadiko unibertsitateak oso aurreratuak daude ikerketari dagokionez eta %46ren ustez nahikoa aurreratuak. %17k uste dute ez daudela oso aurreratuak eta %1ek ez batere aurreratuak. %26k ez dakite edo ez dute erantzun.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, biztanleen gehiengo nagusiak (%67) uste dute Euskadiko unibertsitateak oso edo nahiko berdinzaleak direla, %11k deritzote ez direla oso berdinzaleak eta %1ek batere berdinzaleak ez direla. Biztanleen %21ek ez dute erantzun galdera hau.

Euskadiko unibertsitateen funtzionamenduaren inguruko gai batzuekiko ez ezagutza handia dago: %43k ez dakite erantzuten unibertsitateek mugikortasun, ikusmen, entzumen... zailtasunak dituzten ikasleek bertan ikas dezaten eskaintzen dituzten erraztasunei buruz; %44k ez dakite baloratzen Euskadiko unibertsitateek beste herri batzuetakoekin duten lankidetzaz; %39k ez dute iritzirik ikasleentzako nazioarteko mugikortasun programei buruz eta %56k ez dakite baloratzen online ikasketen eskaintza. Iritzia ematen dutenen artean, iritzi positiboak negatiboan oso gaitetik daude lau gai horietan.

Etorkizuneko ikuspegia

Etorkizunerako proiektu posibleei buruz, gehiengo zabal bati oso edo nahikoa ondo iruditzen zaio Euskadiko unibertsitateek ikasketa batzuk ingelesez eskaintzea (%88), zenbait ikasketa Lanbide Heziketako ikasleen sarrera errazteko diseinatzea (%88), zenbait ikasketa Euskadi-Aquitania-Nafarroa Euroerregioko unibertsitateekin elkarlanean diseinatzea (%77) eta ikasketa batzuk online eskaintzea (%71).

Biztanleen gehiengoak ados daude Unibertsitateari buruzko honako baieztapenekin: unibertsitate eta enpresen arteko elkarlan handiagoak ikasleen formazioa hobetuko luke (%91 oso edo nahikoa ados), Euskadiko unibertsitateek edozein ikasketa euskaraz zein gazteleraz ikasteko aukera eskaini behar dute (%79) eta unibertsitate ikasketek laguntzen dute ikasleak prestatzen gizarteari ekarpen aktiboa egiteko (%74).

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Iñigo Urkullu Lehendakaria da berriz ere hobekien baloratutako buruzagia

EAJ da berriz ere begikotasun handiena sortarazten duen alderdia (4,6 puntu 0tik 10erako eskalan); atzetik datoz EHBildu (3,8), Elkarrekin Podemos (3,6), PSE-EE (3,4) eta Ciudadanos (1,6). PP azken lekuan mantentzen da (1,5).

Buruzagi politikoen balorazioei dagokienez, Iñigo Urkullu Lehendakaria da 5 puntutik gorakoa lortu duen bakarra eta lehenengo lekua mantentzen du (5,5 puntu jaso ditu 0tik 10erako eskalan), bere atzetik doaz Andoni Ortuzar (4,9), Lander Martínez eta Arnaldo Otegi (biek 4,1), Idoia Mendia (4,0), eta azkenik, Alfonso Alonso (2,3).

Diputatu Nagusien artean Markel Olanok 5,2 puntu lortu ditu, Unai Rementeriak 4,8 eta Ramiro Gonzálezek 4,0.

Eneko Goia, Donostiako alkatea da hiriburuetakoen artean baloratuena (5,3 puntu lortu ditu), ondoren Juan Maria Aburto Bilbokoa (5,2) eta Gorka Urtaran Vitoria-Gasteizkoa (4,3).

Independentziari buruzko iritzia dagokionez, herritarren %35 kontra azaldu dira, %27 alde edo kontra leudeke egoeraren arabera eta %23 alde daude. %15ek ez dute erantzun.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.492 lagunek osatua da. Elkarrizketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2\%$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2019ko urtarrilak 29 eta otsailak 9 bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilak 12